## II. ERANSKINA

## ESKAERA-ORRIA

## “IKASKETA ETA ZERBITZU SOLIDARIOKO PROIEKTUEN DISEINUKO NAFARROAKO IV. TXAPELKETA”

| Fitxa teknikoa | |
|---|---|
| **Proiektuaren izena** | |
| **Ikastetxe edo erakunde arduraduna:** | |
| **Erakundearen/ikastetxearen helbidea eta telefonoa** | |
| **Proiektuaren arduraduna** | |
| **Pertsona horren telefono-zenbakia eta helbide elektronikoa**<br>**Arduraduna** | |
| **Zein kategoriatan aurkezten den** | |
| **Erakundeko zein irakaslek edo langilek hartuko duten parte (zerbitzua ematen dutenak, ez jasotzen dutenak): Izen-deiturak** | |
| **Parte hartuko duten neska-mutikoak: kopurua eta ikasmaila** | |
| **Proiektuaren curriculum-arloak edo ikaskuntza-esparruak** | |
| **Erakunde laguntzaileak** | |
| **Zer pertsona talderi zuzendua dagoen** | |

PROIEKTUA
Igo PDF fitxategi batean ikasketa eta zerbitzu solidarioko proiektuaren diseinuaren memoria, txapelketaren oinarriak kontuan hartuta:

**Ikasketa eta zerbitzu solidarioko proiektu bat diseinatzeko eskema**[1]

**"IKASKETA ETA ZERBITZU SOLIDARIOKO PROIEKTUEN DISEINUKO NAFARROAKO IV. TXAPELKETA"**

| Proiektuaren planteamendua | |
|---|---|
| **Definitu beharreko alderdia** (Galdera orientagarriak. Kontsultatu balorazio-irizpideak oinarrietan). | **Bete zutabe hau zeure proiektuarekin** |
| **Proiektuaren sinopsia** Deskribatu lerro gutxitan proiektua zertan den, lehenbiziko irakurketan ulertzeko eta ikasketa eta zerbitzu solidarioaren funtsezko elementuak jasotzeko moduan. | Adibidez: Hizkuntza eta Balio Etikoak irakasgaietan, neska-mutikoek Rio Vero egoitzako adinekoei laguntza eta estimulua emanen diete; memoria-tailerrak dinamizatuko dituzte haiekin, eta, aldi berean, beren komunikazio- eta gizarte-gaitasunak indartuko dituzte. |
| **Landuko den ingurunearen behar soziala** Zer arazo edo behar sozial landuko dute neska-mutikoek? | Adibidez: Adinekoek egoitzetan bizi izaten duten bakartze sozial eta emozionala, eta haien narriadura kognitiboa geldiarazteko premia. |
| **Zerbitzu solidarioa** Zer zerbitzu-ekintza eginen dute neska-mutikoek? | Adibidez: Adinekoei lagun egiteko eta haien bakardadea arintzeko memoria-tailerrak eta aisialdi-jarduerak antolatzea eta gauzatzea. |
| **Garapen Jasangarrirako Helburuekin eta haien jomugekin duten lotura** Garapen jasangarriko zein helburuekin eta zein jomugarekin lotzen da proiektua? | Adibidez:<br>▪ 3. helburua: Osasuna eta ongizatea<br>▪ 3.4 jomuga. Osasun mentala eta ongizatea sustatzea.<br>▪ 4. helburua: Kalitatezko hezkuntza.<br>▪ 10. helburua. desberdinkeriak murriztea.<br>▪ 10.2 jomuga: pertsona guztien inklusio soziala, ekonomikoa eta politikoa indartzea eta sustatzea.<br>▪ 17. helburua: Helburuak lortzeko aliantzak. |
| **Neska-mutikoen hezkuntza-premiak** Zer ezaugarri dituzte neska-mutikoek? Zer hobetu behar dute? | Adibidez: Ikasgelako bizikidetza-gatazkak; adinekoekiko errespetu gutxiko jarrerak; komunikazio-trebetasun eskasak… |
| **Landuko diren hezkuntza-helburuak eta/edo curriculum-edukiak** Erakundeentzat: Zer funtsezko ikaskuntza indartzen ahal dira proiektu honekin? Ikastetxeentzat: konpetentziak eta oinarrizko jakintzak. | Adibidez:<br>▪ Zahartzeari eta ongizate-estatuak ematen dituen erantzunei buruzko ezagutza.<br>▪ Bakardadeari eta adinkeriari buruzko hausnarketa.<br>▪ Komunikazio-trebetasunak, modu onak eta adinekoekiko tratu ona.<br>▪ Tailerrak garatzeko antolaketa-trebetasunak. |

[1] Ana Aguilar de Armasen (ApS Madrid) "Manual para Docentes y Estudiantes Solidarios" (CLAYSS) eskuliburuaren egokitzapenean oinarritua.

| | |
|---|---|
| **Ikaskuntza-jarduerak**<br>Zer ikaskuntza-jarduera eginen dituzte neska-mutikoek zerbitzua hobeki gauzatzeko?<br>Parte-hartzea eta lankidetza kontuan hartzen dituzten jarduerak.<br>Adierazi zein egiten diren ikasgelan edo erakunde sozialaren egoitzan, eta zein kanpoan. | Ikastetxearen barruko jardueren adibideak:<br>▪ Gizarte-zerbitzuek bisita egitea, bakardadearen arazoa planteatzeko.<br>▪ Memoria estimulatzeko jarduerak ikastea eta praktikatzea.<br>▪ Jarduerak hautatzea eta memoria-tailerrak prestatzea.<br>▪ Zerbitzuan erabili beharreko konpetentziei buruz hausnartzea, banaka.<br>Ikastetxetik kanpoko jardueren adibideak:<br>▪ Auzoan inkesta bat egitea, jakiteko zer behar dituzten herritarrek. |
| **Zerbitzu-jarduerak**<br>Zer jarduera eginen dituzte neska-mutikoek zerbitzu honetan?<br>Parte-hartzea eta lankidetza kontuan hartzen dituzten jarduerak.<br>Adierazi zein egiten diren ikasgelan edo erakunde sozialaren egoitzan, eta zein kanpoan. | Ikastetxearen barruko jardueren adibideak:<br>▪ Diseinatutako laguntza-jarduerak egitea bisitatzen gaituen gizarte-erakundeko kideekin.<br>▪ Zerbitzua bukatu ondoan, hura ebaluatzea egoitzako arduradunekin batera.<br>Ikastetxetik kanpoko jardueren adibideak:<br>▪ Tailerrak egitea egoitzan.<br>▪ Tailerrei buruzko bideo bat grabatzea.<br>▪ Kontzientziazio-kanpainari buruzko informazio-liburuxka bat banatzea.<br>Tailerren bukaerako ospakizuna egitea adinekoekin. |
| **Hausnarketa-jarduerak**<br>Zer jarduera eginen dira arazoaren kausei eta ondorioei, ikaskuntzei, zerbitzuari eta abarri buruz hausnartzeko eta pentsamendu kritikoa garatzeko? | • Lehenbiziko ikerketaren ondotik, hautemandako premiaren arrazoiei buruzko eztabaida eginen dugu.<br>• Zein egoerarekin ez gaude ados?<br>• Nork erantzun beharko lioke premia horri, borondatezko zerbitzuaren mende egon ez dadin? |
| **Jardueren egutegia**<br>Noiz gauzatuko dira diseinatutako ekintzak? | Sartu egutegi eskematiko bat. |
| **Neska-mutikoen protagonismoa**<br>Nola sustatuko dugu neska-mutikoek proiektua berena egitea eta proiektuarekin konprometitzea?<br>Nola lortuko dugu benetan parte har dezaten eta erabakiak har ditzaten proiektuaren fase guztietan? Premiak aztertzea, zerbitzua diseinatzea, jarduerak diseinatzea, ebaluazioa diseinatzea… | Adibidez:<br>▪ Banakako konpromiso bat sinatzea.<br>▪ Proiektuaren izenaz, antolaketaz eta zereginen banaketaz erabakitzea.<br>▪ Banakako eta taldeko erantzukizunak banatzea…<br>▪ Egin nahi diren jarduerei buruzko erabakiak hartzea.<br>▪ Ebaluazioa batera diseinatzea. |

| | |
|---|---|
| **Sareko lana**<br>Beste zer erakunderekin eginen dugu lan, eta zer akordio lortuko ditugu haiekin? | Adibidez:<br>Río Vero egoitza: Adinekoen ekarpena; egoitza uztea tailerrak egiteko; neska-mutikoek egiten duten zerbitzua ikuskatzea eta aholkatzea.<br>Udaleko gizarte-zerbitzuak: Landu beharreko arazoa planteatzen parte hartzea. |
| **Ospakizuna**<br>Nola ospatuko dugu proiektua egin izana, aldeek elkar aintzatesteko eta egindako lana ere aintzatesteko? | Adibidez:<br>Tailerrak bukatzeko, egoitzan askaria egitea adinekoekin batera, parte-hartzaile guztiek esku hartzea eta oroitzapenak trukatzea, jarduera bera eta belaunaldien artean sortutako harremana hizpide hartuta. |
| **Zabalkundea**<br>Nola zabalduko dugu proiektua? | Adibidez:<br>▪ Tokiko prentsa gonbidatzea proiektuan lagun egiteko eta bukaera kontatzeko.<br>▪ Bideo labur bat grabatzea eta sare sozialetan zabaltzea.<br>▪ Ikastetxearen edo gizarte-erakundearen webgunean atal bat txertatzea… |
| **Baliabideak**<br>Zer behar da proposatutako jarduerak egiteko? | Behar diren baliabideen adibidea:<br>▪ Baliabide ekonomikoak: Gastuen aurrekontua eta proiektuaren bideragarritasuna (garraioa, materialak…).<br>▪ Giza baliabideak: boluntarioen edo profesionalen laguntza…<br>▪ Antolaketa-baliabideak: baimenak, erantzukizunen banaketa |
| **Ebaluazioa**<br>Nola ebaluatuko da proiektua bere osotasunean eta bere elementuetako bakoitza (ikaskuntzak, zerbitzuaren emaitzak, sareko lana eta abar)? Ikastetxeen kasuan, curriculumeko ebaluazio-irizpideak, hautatutako konpetentziei eta jakintzei loturikoak. | Adibideak:<br>▪ Lortu nahi ziren ikaskuntza-helburuei buruzko autoebaluazio-galdetegia.<br>▪ Neska-mutikoen jardunari buruz egoitzak egiten duen balorazioa jasotzeko galdetegia.<br>▪ Egindako curriculum-ikaskuntza nolakoa izan den jakiteko ebaluazio-irizpidean oinarritutako errubrika. |

Oinarriak onartzea

☐Adierazten dut ezagutzen eta onartzen ditudala ikasketa eta zerbitzu solidarioko proiektuen diseinuko Nafarroako txapelketaren oinarriak.

☐ Lauki hau markatuta, adierazten duzu Datuak Babesteko Legeari buruzko informazioa irakurri eta onartu duzula.

☐ Marka ezazu lauki hau, erantzuna bitarteko elektronikoen bidez jaso nahi baduzu.

Sinadura                                                                 Eguna